

GARAPEN IRAUNKORRA SUSTATZEKO LAGUNTZAK, 20176

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

XEDEA

Agindu honen xedea erakunde hauei zuzenduko zaizkien diru-laguntzen deialdia arautzea da: Udalei, Mankomunitateei, bestelako Tokiko Erakundeei, Tokiko Erakunde Autonomoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Merkataritza Sozietateei garapen iraunkorra sustatzeko honako ildo hauekin bat datozen jarduerak gauzatzen badituzte:

- a) Kutsatutako lurzoruak. Tokiko titulartasun publikoko lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa eta atmosfera. EAEn inguru-airearen kalitatea hobetzea sustatzen duten ekintzak, zarataren inguruko ekintzak, eta arintzera (berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak murriztea) eta egokitzera (klima-aldaketaren ondorioak murriztera bideratutako plangintza eta ekintzak) bideratutakoak.
- c) Natura ondarea eta biodibertsitatea. EAeko dibertsitate biologikoari eusteko eta berau leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra. Hondakinak ez sortzeko– batik bat jakiak alferrik ez galtzeko eta biohondakinak ez eragiteko– ekintzak.
- e) Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 egitasmoen arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.

*Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozer erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste diru laguntzekin, gainfinantzaketarik gertatzean salbu.

ONURADUNAK

EAEko udalak, mankomunitateak edo beste tokiko erakunde batzuk eta erakunde autonomo nahiz tokiko merkataritza- sozietateak.

LAGUNDUKO DIREN LAGUTZAK

- a) Lurzoru kutsatuen lerroan. Hona diru-laguntza jaso ditzaketen jarduerak: Kutsagarriak izan daitezkeen jardunak izan dituzten lurzoruak aztertzeko eta lurzoru kutsatuak lehengoratzeko ekintzak,

bai industria-jarduerak egin diren lurzoruetan, bai garai batean hondakindegia klandestino gisa erabilitako lurzoruetan, baldin eta lehengoratzeari ekin baino lehen aurretiazko ikerketa-fasea burutu bada. Garai batean hondakindegia klandestino gisa erabilitako lurzoruak lehengoratzeko, inguru horretako biodibertsitatea kontuan hartzeko irizpideak aplikatu beharko dira, biodibertsitatea areagotzeko xedez, eta landare-geruza hobetzeko materia organikoa gehitu behar izanez gero, lehentasunez material bioegonkortua edo konposta erabili beharko da, bata zein bestea erabili, kokagunean aurreikusitako erabilerarako egokia dela egiaztatuta. Industriako aurriak ingurumenaren ikuspegitik lehengoratzeko ekintzak, kanpoan utzita kutsagarria izan daitekeen industria-jardueraren aurriak eraistea eta harrien edo industria-jarduerari lotuta ez dagoen beste edozer eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzea. Ingurumen-jarraipeneko ekintzak, Ingurumen Sailburuordetzak sustatuko proiektuen barnean daudenak; gehienez, 5 kontrol- eta jarraipen-kanpaina hondakindegia lehengoratu ondoren edo garai batean hondakindegia klandestino izandakoaren lurzoruari kalitate-adierazpena eman ondoren. Aipatutako ekintzek baldintza hauek bete beharko dituzte, diru-laguntza jasotzeko:

1) Jarduketak toki-titulartasuneko lursailetan egitea, titulartasuna 2005eko maiatzaren 16a baino lehen formalizatu bada eta diruz lagundutako jarduketa gauzatzeko betebeharra duen beste hirugarrenik ez badago, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko legediaren arabera. Ez da betekizun hori aplikatuko, baldin eta besteren bat behartuta badago eta horrek ezin badu jarduketa gauzatu konkurtso-egoeran dagoelako edo toki-erakunde batek jarduketa subsidiarioren bat gauzatu behar duelako ingurumen-arriskuari edo segurtasunari loturiko arrazoiengatik, are titulartasuna pribatua bada ere. Jarduketa horien kostuak, behin amaituta, behartuta dagoenari jasanaraziko zaizkio, erakunde eskatzailea ez den beste bat bada. Titulartasun elkarbanatua duten lurretan egiteko proiektuen kasuan, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, udal edo erakunde eskatzailearen titulartasunaren ehuneko hartuko da kontuan. Halaber, lurzoruaren titulartasunari buruzko betekizunak ez dira nahitaez bete beharko, baldin eta lurzoria ikertzeko edo leheneratzeko neurriak hartzera behartuta dagoena udala bada, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.3 artikuluan aplikatu behar bada edota horretara behartuta dagoena ekintza hori egitetik salbuetsita badago, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko araudiaren arabera.

2) Industriako aurrietan, toki-erakunde batek jarduketa subsidiarioren bat gauzatu beharko da, bai ingurumen-arriskuagatik bai segurtasunagatik, are titulartasuna pribatua bada ere. Jarduketa horien kostuak, behin amaituta, behartuta dagoenari jasanaraziko

zaizkio, baldin eta erakunde eskatzailea ez den beste bat bada. 3) Lurzoruak leheneratzeko ekintzak ez dira diru-laguntzen xede izango, baldin eta lurzoruok etxebizitzak eraikitzaera edo industria-jardueretara bideratuko badira. Egindako eskabideen kopurua gorabehera eta aurrekontu erabilgarririk badago, titulartasun publikoko lurzoruak kokatutako etxebizitzak eraikitzaera bideratuko diren lurzoruak ikertzeko eta leheneratzeko diru-laguntzen eskabideak onartuko dira, baldin eta leheneratzeko in situ edo on site tratamenduko teknologiak erabiltzea beharrezkoa bada, hau da, kanpo-baliabidez hondeatutako lurzoruak hondeatzea eta kudeatzea ez bada erabiltzen. b) Klima-aldaketaren eta atmosferaren lerroan. Honako helburu hauek sustatzen dituzten ekintzak izango dira diruz lagungarri: 1) Inguru-airearen kalitatea hobetzea, partikulekin (PM10, PM2.5) eta nitrogeno dioxidoarekin (NO₂) lotuta. Giro-airearen kalitatea hobetzea, iragazte-ekipamenduak ipinita errausketalabeetan, animalienetan izan ezik. 2) Zarata arintzea. Zarata arintzeko ekintzen kasuan, pantaila akustikoak eraikitze beharra izanez gero, zarata-murrizketan berdinketa dagoenean, aldeko balorazioa jasoko dute pantaila begetalak dituzten eta hegaztientzako ondorio negatiborik ez duten proposamenek. 3) Klima-aldaketa: Mugikortasun jasangarria.

– Bidegorriak edo bidegorri-lotuneak, mugikortasun-eragileak (besteak beste, bizitoki-eremuak, ikastetxeak, industrialdeak eta kirol-instalazioak) konektatzea lehenetsita, baldin eta biodibertsitatea kontserbatzearekin bat badatoz. – Ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak. – Autobus elektrikoak eta hibridoak. – Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak.

Klima-aldaketa: Moldaketa. – Klima-aldaketara egokitzeko ekintza-planak egitea, udalerrian urrakortasun-egoerak murrizteko epe luzera (gutxienez 20 urtera begira). – Klima-aldaketaren eraginak murriztea (egokitzapena) eta ekosistemen erresilientzia hobetzea, «Udalsarea 21 Lan-koadernoan 12. zk.: Klima-aldaketara egokitzeko Udal-programak egiteko gidaliburua» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko» liburuetan jasotakoen motako ekintzen bitartez. Honako ekintza hauek, berriz, ezin izango dira diruz lagundu: – Klima-aldaketan eta airearen kalitatean eragin txikia duten ekintzak; besteak beste, bizikletentzako aparkalekuak jartzea, kaleak oinezkoentzako bihurtzea eta bidegorriak eraikitzea –lehenetsia ematen ez diotenak mugikortasun-eragileen arteko loturari (ekoizleen eta erakarleen arteko lotura, bizilekuak, ikastetxeak, industrialdeak, kiroldegia etab. kontuan hartuta). – Zerbitzuak ematea; zehazki, garraio publikoko beste linea bat gehitzea. – Galdarak ezartzea edo ordeztea, lehen zeudenek baino isurpen gutxiago eragin arren. – Azterlanak edo diagnostikoak (mugikortasun-planak, adibidez), agindu honetan berriaz aipatutakoak izan ezik. – Eta, bereziki, ez

dute diru-laguntzarik jasoko azpiegitura eraikitzea dakarten ekintzek, baldin eta ez badira kontuan hartu irizpide ekologikoak eta hiriko ingurumena hobetzeko irizpideak, ez badira paisaian txertatzeko eta ingurune naturalaren gaineko eragina txikiagotzeko ahaleginak egin, edo ez badira biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarriak. Azpiegiturek materialen beharra izanez gero, eraikuntzan materialen gutxienez % 70 birziklatuak izango dira; nagusiki, agregakin birziklatuak eta zepak. c) Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen lerroan. Diruz laguntzeko modukoak izango dira diru-laguntzarako eskabidea egiteko epean amaitu gabe dauden proiektuak, baldin eta biodibertsitatea zuzenean kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea sustatzen badute, honako ekintza hauen bidez: 1) Komunitatearentzat edo eskualdearentzat interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko egiten diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak. Kontserbazio-interes handieneko edo kontserbazio-egoera okerreneko habitatetan egitekoak diren ekintzak lehenetsiko dira, esaterako, ibarbasoak, baso autoktonoak, padurak, habitat hidroturbosoak etab.

2) Europar Batasunean edo eskualde mailan mehatxatutako basafloa eta basafauna espezieak –Batasuneko arauetan edo Estatuko zein erkidegoko katalogoetan jasotakoak– babesteko eta kontserbatzeko proiektuak.

3) Flora exotiko inbaditzaileko espezieak desagerrarazteko proiektuak, degradatuta dauden habitat naturalak leheneratzeko ekintzak jasotzen badituzte.

4) Hezeguneen lurralde-plan sektorialeko II. eta III. taldeetan sartutako hezeguneen kontserbazio-egoera leheneratzea eta hobetzea.

5) Lurraldearen konektagarritasun ekologikoan eragin zuzena izango duten jarduketak, esaterako, toki-mailako biodibertsitate-intereseko eremuen arteko lotuneak sustatzea, heskaiak sortzea, azpiegitura berdeak bultzatzea (harrapatzeen puntu beltzak murriztea, fauna-pasabideak etab.). Zehazki, lehentasunezko ekintzak izango dira aurreko paragrafoetan dauden eta, gainera, Natura 2000 eremuen kontserbazio-neurrien agirietan (edo kudeatzeko planetan) ere jasota ageri diren ekintzak (hemen eskuragarri: www.euskadi.eus/natura2000). Diruz lagundu ahal izango dira, orobat, erriberak eta ibilguak garbitzeko jarduerak; betiere, jarduera horiek udal eskatzailearen eta Uraren Euskal Agentziaren artean sinatutako lankidetzaprotokoloen esparruan egiten badira. Horrelako protokoloek edo dagokien jarduera-lanek biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko nahitaez bete beharreko baldintza batzuk bilduko dituzte. Ez dira diruz lagunduko ezagutzak eskuratzeko azterlanak idaztera zuzendutako eskaerak, ez eta sentsibiltate-ekintzak argitaratzera zuzendutakoak ere. Ez dira diru-laguntzaren xede izango edozer obra edo proiekturen administrazio-baimenean ezarritako zuzenketa- edo konpentsazio-neurrien ondorioz gauzatutako ekintzak. d) Ekonomia zirkularren lerroan. Diruz lagundu ahal izango dira hondakinak ez sortzera bideratutako ekintzak –nagusiki jakiak

alferrik ez galtzera eta biohondakinak ez eragitera bideratutakoak-. Batez ere hauek: Elikagaiak alferrik ez galtzea sustatzeko eta/edo ezartzeko mekanismoak. Merkataritzako materia organikoa gaika biltzeko sistemak. Hondakinak sortzeagatik ordaintzeko sistemak, gaika biltzen ez diren hondakinak ez sortzera eta gaikako bilketa sustatzera bideratutakoak. Gaika biltzen ez diren hondakinak ez ekoizteko lagungarriak diren sistemak ezartzea, errefusaren bilketan erabiltzailea identifikatuta, eta era konbinatuan biohondakinen atalean. Neurri horiez gain, herritarrei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egin beharko da.

e) Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan: Diruz lagundu ahalko dira Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak, 2017ko uztailaren 1etik 2018ko uztailaren 15era bitartean egiten badira. Ekintza horien artean, gutxienez honako hau egongo da: ikasturte bakoitzean, eskola arteko foro bat eta udal-foro bat antolatzea. Foro horietan, besteak beste, aurreko foroetan hartutako konpromisoen jarraipen-txosten bat aurkeztu beharko da.

EPEA

Eskariak aurkezteko epea: **2017/09/14**

TOKIA: Eskaren bi kopia aurkeztu beharko dira, Ingurumeneko sailburuordeari zuzenduta. Honako leku hauetan aurkeztu ahal izango dira: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Erregistro Nagusian (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), esandako Sailaren lurralde bulegoetan, Zuzenean Zerbitzuko herritarren arretarako guneetan, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetako edozeinetan.

DOKUMENTAZIOA

a) Behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpena (2011rako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren abenduaren 23ko 5/2010 Legeak sartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan 6. paragrafoan aipatuta), zeinak 6.3 artikuluan ezarritako baldintzak betetzea egiaztatu ez ezik, hauxe ere jasoko duen:

1.- Erakunde eskatzaileak administrazio zein beste erakunde publiko nahiz pribatuei xede bererako laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera nahiz bestelako baliabide guztiak eskatu eta lortu dituen, bai eta diru-laguntza programetan BEZa ere lagun daitekeen ala ez berariaz adierazita ere.

2.- Erakunde eskatzailea dirua itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren batean nahasita egon den edo horrelako baten xede izan den. 93. zk.

2016ko maiatzaren 18a, asteazkena

3.– Erakunde eskatzailea zigor- edo administrazio-bidetik laguntza edo diru-laguntza publikorik ez jaso ahal izateko zigortu duten, edo diru-laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen inolako legezko debekuren kasuan dagoen.

b) Oinarrizko eta harremanetarako datuen formularioa.

c) Laguntza eskatzen den jardun-lerroari dagokion «Aurrekontua» inprimakia, behar bezala beteta. Aurrekontua kontu-sailen arabera banakatu beharko da, kontzeptuak argi bereizita.

d) Laguntza eskatzen den jardun-lerroari dagokion «Proiektuaren memoria» inprimakia. Beharrezko eremu guztiak bete beharko dira, diru-laguntza eskatzen den proiektu motaren arabera. Zehazki, «Memoria» inprimakiari dagokionez, dagokion lerroa gorabehera, beharrezkotzat joko dira inpaktu-murrizketaren parametro gakoena, hala nola kalkulu-metodoa zehatz azaltzearena.

e) Lurzoru kutsatuen lerroaren kasuan, erakunde eskatzaileak kokalekua titulartasun publikokoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Halaber, titulartasun publiko hori noiz eskuratu zen argitu beharko du, bai eta kokalekuaren zer ehuneko den udalaren titulartasuna ere. Aurreko baldintzak, baita, hala badagokio, Agindu honen 2.1.a) artikuluan aurreikusitako salbuespenak ere, horien berri ematen duen egiaztagiraren bidez (edo egiaztatzeko balio duen beste edozein dokumenturen bidez) justifikatu ahal izango dituzte.

f) Udal-erakinen etorkizuneko birgaikuntzan gauzatu beharreko ekintzen azterlan xehatuei buruzko klima-aldaketa eta atmosferaren lerroko ekintzei dagokienez, diru-laguntza eskatzen duten jarduna garatuko den eraikinaren behin betiko ziurtagiri energetikoaren kopia ere erantsi beharko dute, bai eta udalaren idazkariak egindako ziurtagiri bat ere, eraikin horretan 2015eko ekitaldian guztira zenbat energia eta erregai kontsumitu den jasotzen duena. Halaber, berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztera bideratutako klima-aldaketa eta atmosferaren lerroko ekintzei dagokienez, diru-laguntza eskatzen den jarduerari dagokion isurpen-murrizketa zehazteko egindako hipotesiak, kalkuluak edo estimazioak jasota eta azalduta dauden frogagiria atxiki beharko da.

g) Martxan jarritako ekintzek aurrezkoa sortzen badute, 7.3 artikuluekin bat etorriz, jakinarazitako aurrezkiak zehazteko egindako hipotesien eta kalkuluen frogagiria atxiki beharko da. h) Kapital naturalaren eta biodibertsitatearen ekintzen kasuan, «Beharrezko baimenen laburpena» inprimakia, eta, baimenak jaso gero, erakunde eskudunek emandako baimenen kopiak (Jabari Publiko Hidraulikoan, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoan, Natura Parkeetan eta abar jardunez gero).

2.– Eskatzaileek, borondatez, eta puntuazio handiagoa lortze aldera, honako agiri hauek aurkeztu ahalgo dituzte eskabideekin batera:

a) Proiektua, aurreproiektua eta/edo eskaintza teknikoa, jardunen xehetasuna eta faseen arabera banakatutako aurrekontua jasota.

b) Klima-aldaketa eta atmosferaren gaineko ekintzen kasuan, erakundeko

idazkariak emandako ziurtagiria, Airearen Kalitatearen Ekintza Plana edota klima-aldaketarekin zerikusia duen beste edozer plan, programa edo ordenantza ezartzeko prozesua hasteko udalaren osoko bilkuran hartutako erabakia jasotzen duena.

c) Hala badagokio, Tokiko Agenda 21en Tokiko Ekintza Plana eta/edo Tokiko Ekintza Planaren Ebaluazio eta Jarraipen txostena.

d) 17. artikuluan zehaztutako balorazio-irizpide guztiak behar bezala aplikatzeko beharrezkotzat jotzen diren argibideak.

NORMATIVA

AGINDUA, 2017ko uztailaren 19koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena eta diru-laguntzok emateko deialdia egiten duena.(2017/07/24ko EHAA).